

...eta

Kitto!

886 zkia.
2014-IV-11



GURPIL sasoian MURGILduta



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Miopiaren kirurgia:

- Femtosegundoko laserrarekin: 1.150 € begi bakoitzeko
- Excimer laserrarekin: 975 € begi bakoitzeko

R.P.S. 234/13

Plaza Barria 2. 2º. - 20600 EIBAR - Tel.: 943 201 844 - www.clinicarecalde.com





LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.**

Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.**

Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.**

Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamancako Unibertsitatea.**

Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea. Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. Leongo Unibertsitatea.**

Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**

Hortz-Estetikan Diplomatua.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.

Hortz-Estetikan Diplomatua.

Autran Institutoa, Bartzelona.

Etengabeko Formakuntza.

New York-eko Unibertsitatea.

Oklusioan Graduondoa.

Anibal Alonso Doktorea.



Astelehenetik ostiralera:

8:00etatik 22:00etara

Zapatuetan:

10:00etatik 14:00 etara

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGON/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...

Galdetuiguazu!



IRAZABAL

clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

ASTEAN ESANAK

"I. Mundu Gerran, Iparraldeko herri guztietako hainbat gizon borrokatu eta hil ziren, eta ez zekiten frantsesez. Nonbait, bataila asko galdu ziren soldaduak ez zirelako hizkuntza berean mintzatzen, ez zituztelako aginduak ulertzen. Gai hori traumatikoa izan da Frantzia eta, gerla horien ondoren, erabaki zuten haur guztiek frantsesa jakin behar zutela. Horregatik bilakatu da frantses hizkuntza mito Errepublikan"

(PAXKAL INDO, SEASKAKO PRESIDENTEA)

"Zer gertatzen da herri eskaldunetan mila etxe eraikiz gero? Gatican, esaterako, euskararen ezagutzak eta erabilerak behera egin dute. Zer gertatu da? Bada, Bilbo arintzeko erabakiaren ondorioz, inguruko herri txikietan etxe piloak egin dutela"

(ONINTZA IRURETA, KAZETARIA)

"Umeentzat produktu asko egiten ditugu, baina nerabeak galduak ditugu: erdal kulturara pasatzen dira azkar eta kultura amerikarra kontsumitzen dute gehienbat. Ez dute euskarazko libururik hartzen; eskerrak musika, oraingoz salbatzen dela. Nerabeak erakartzeko funtsezkoa da umorea erabiltzea"

(JHON ÁNDUEZA, ZINEGILEA)

"Murrizketak errezeta nagusi diren Espainiako Estatuan, biderkatu egin dira buruko nahasmenduak, %19 egin dute gora depresio kasuek, %8,4 antsietateari lotutakoek, %4,6 alkoholismo arazoek eta nabarmen gehitu dira suizidioak"

(MIKEL GARCIA, KAZETARIA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

KALE GORRIXAN.- Premiña handian, ezer barik. "Diru guztiak amen batian gastau eta oin kale gorrixan bizi da".

KALE GORRIXAN LAGA.- Kalera bota. Gaztelerazko 'de patitas en la calle'. "Kale gorrixan gaiñian laga eban lamai barik".

eskutitzak

- OHARRA -

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrihorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingaririk

onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunikizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreo bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA

OHARRA

Aste Santua dela-eta, datorren astean ez da alerik egongo. Hurrengo hilaren 25ean kaleratuko dugu eta, maiatzaren 1eko zubian ere astekaririk egongo ez denez, kontuan hartu ezazue edozein zorion agur, eskela edo bestelako informaziorik argitaratu nahi baduzue. BARKATU ERAGOZPENAK.

ERREDAKZIOA



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILERA: ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /

publizitatea@etakitto.com **Elkartaren E-MAILak:** elkarte@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,

Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Leire Iturbe

BANAKETA-ARDUARDUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.100 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGÉ-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunikizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Elena Laka, Topaguneko presidente barrixa

Aurreko zapatuan Topaguneko Gasteizen egindako batzar nagusixan halan erabagitta, Elena Laka eibartarrak ordezkatu dau Mikel Irizar Topaguneko presidente karguan. Lakak Eibarko ... eta kitto! Euskara Elkartearen sorreran hartu eban parte eta orduz geroztik alkarteko bazkidea da eta kargurako hautagaitza ... eta kitto! Euskara Elkartek babestu eban. Hautagaitza dala-eta, ... eta kitto!-ko zuzendaritzak zera diño: "Azken urtiotan be gure alkartiarekin hartuemonan euki dau, bestiak beste batzarretan parte hartuta eta aldizkarixan kolaboraziñuak idatzitta eta, horregaittik, Topaguneko presidentetzarako bere alde egittia erabagi eban alkartiak. Gauza jakiña da ... eta kitto! Euskara Elkartea kritiko agertu dala Topaguneko azkenaldixan aztertutako

hiru puntu nagusixetan —oiñarriraperrren gaiñeko Kongresua, baillarako proiektu komunikatibua eta Tokikom-en sorreria— eta, horren eragiñez, dezentte hoztu dala Topagunearikiko harremana. Horren jakittun, Elena Lakaren alde egin dogu, siñestuta bere esku daguan guztia egingo dabela harreman hori onbideratzeko. Lakak gertutik ezagutzen dau ... eta kitto! Euskara Elkartea eta espero dogu alkatere honek egindako ekarpenak aintzat hartzen jakingo dabela. Alkarren biharra dakagu guztiok, herri hau euskaldunduko badogu eta, horretarako, Elena Laka gure bazkidiarengan konfiantza osua daukagu. Biharbada, ez dogu beti asmatuko, baiña gure onena emoten segiduko dogu aurrerantzian be. Zorionak, Elena!".



Elena Laka Mikel Irizarrekin.

Deparkelen pintxo-potia

Debabarrena Parkinson alkaterekuak bixarko pintxo-potia antolatu dabe: 12.00etatik 15.00etara eta 19.00etatik 22.00etara Untzagan zabalduko daben barran eskintza berezixa topauko dau jendiak; euro bi pagauta urteko ardaa edo ura eta pintxo bat jateko aukeria egongo da (sasoiko produktuekin egindako bost pintxo ezberdin egongo dira aukeran). Zuritua nahi dabenak 2'5 euro pagau biharko dittu.



Dendarixen Udaberri Fest

Eibar Merkataritza Gune Irekiko 170 bat denda eta tabernak gaurko Udaberri Fest izenekua antolatu dabe. Bestiak beste zozketa berezixak eta kale animaziñua egingo dittue eta 35 tabernatan konsumiziñuarekin batera pintxua duan emongo detse bezerueri 20.00etatik 23.00etara. Arratsaldian Zo Zongo Perkushov-k kalejiria egingo dau eta otxote bat kantuan ibilliko da. Eta EMGI-ko kidia dan El Corte Inglesak Ipurua dantza garaikidiaren erakustaldixa eta DJ batekin saia antolatu dittu Toribio Etxebarria kaleko dendan eta, gaiñera, 23.00ak arte zabalduko dabe.

Bertso-afarirako txartelak

Apirillaren 26xan hasi eta maiatzaren 4ra bittartian ospatuko diran Santa Kurutzeko jaixetarako programan, bertso-afarixa egingo da apirillaren 26xan (zapatuan), 21.00etan Ixua jatetxian. Aitor Sarriegi eta Iker Zubeldia bertsolarixak jardungo dabe eta nahi dabenak afarirako txartelak Ixua jatetxian erosteko aukeria da (28 euro).

Santa Kurutzeko Jaixak 2014 Eibarren

BERTSO AFARIA

Ixua jatetxean

apirilak 26, zapatua 21:00tan

Aitor Sarriegi eta Iker Zubeldia bertsolariekin

Prezioa: 28€
Txartelak: Ixua jatetxean

Bertso-afarirako kartela.



Zo-Zongo Perkushov-k kalejiria egingo dau.



MARISABEL ELGEZUA AREITIOAURTENA

"Ama ezinhobia izan zara. Eskerrik asko bihotz-bihotzez. Beti egongo zara gurekin"

ESKERRIK ASKO gure onduan egon zarien guztiori. **BIXAR**, larunbata, arratsaldeko 19.00etan, San Andres Parrokian bere omenezko **ELIZKIZUNA** ospatuko da.

Errenta aitortzeko kanpaiña

Diputaziñoko Ogasunak 2013ko errenta aitortzeko kanpaiñiari ekin zetsan astelehenian. Aitorpenak aurkezteko hiru modu dagoz: etxera postaz bialdutako proposamenak onartuta (te-

2013ko ERRENTA AITORPENA Euskaraz

MEKANIZATUA:

- Hitzordua hartzerakoan, aitortze eta Ogasunaren harremanak euskaraz izan nahi dituzula.
- Ogasunaren aurte aurte harremanak, telefonoz edo Internet bidezkoak euskaraz izan ditzakezu. Horretarako ez dago bidea.
- Ogasunak sinatzeko ematen dituzten orriak ere euskaraz jaso ditzakezu.

AUTOLIKIDAZIO PROPOSAMENA:

- Jasotako proposamena onartzerakoan, euskaraz egin nahi dituzela eta aurrerantzean Ogasunak agiriak euskaraz bidaltzeko dagoz.

INTERNET BIDEZKOAK:

- Errenta programaren euskarazko bertsioa jarri Interneten eta horretarako hitzordua ahalik euskaraz atera.
- Aholkularitzaren bat aukeratu behar duzue, zuzenki edo zuzen bidezko dago aitorpena euskaraz egin nahi duzula.
- Batzen modu batean egiten baduzue (finantza erlunde batean, adibidez), euskaraz egiteko eska dezakezu.

telefonoz edo internet bidez, ekaiñaren 25era arte); mekanizatu (telefonoz edo internet bidez hitzordua aurrez eskatuta, ekaiñaren 6ra arte); eta internet bidez, horretarako eskintzen daben laguntza-programa erabillita (ekaiñaren 25era arte). Kanpaiñarekin lotutako informaziño guztia gipuzkoa.net webgunian eskuragarri dago eta edozein zalantza argitzeko laguntzarako telefonua be badago (902 100 040).

autuan

GURE ESKU

Gure Esku Dago/San Blas Zati Bat taldekuak mahaixak ipiñiko dittue kalia gaur arratsaldian, 19.00etatik 21.00etara, ekimena ezagutzera emon, materixala saldu eta giza-katerako metruak saltzeko. Herrixan sakabanatuta, Amaña, Urkizu, Untzaga eta Ipuruan ipiñiko dittue mahaixak.

POSTA BIDEZKO BOZKA

Maiatzaren 25eko hauteskundietan botua korreoz emoteko laguntasuna eskinduko dabe PSE-EE eta EAJ alderdixak: sozialistak tramitiekien laguntzeko eta informaziña emoteko bulegua ipiñi dau Casa del Pueblon (09.00etatik 13.00era eta 16.00etatik 19.00etara) eta 943207168 / 943208508 telefonuetan be atendiduko dabe jendia. Eta EAJ-k maiatzaren 18ra arte Batzokiko buleguan (Ego Gain, 1-1D) hartuko dau jendia, astelehenetik barixakura 10.30xetatik 13.00era (astelehen eta martitzenetan 17.00etatik 19.00etara be zabalduko dabe).

Saharako umiak hartzeko famelixak

Aurreko asteburuan Eibar-Sahara alkartekuak Untzagan egon ziran erabillittako liburuak saltzen eta arduradunak pozarren dagoz jendiak zelan erantzun daben ikusitta, "liburu mordu" saldu ebelako. Holakuetan batzen daben dirua alkartiak urtian egitten dittuan jarduerak pa-

gatzen laguntzeko erabiltzen dabe. Alkarteko ordezkariak azokan liburuak erositta lagundu daben guztieri euren esker ona azaldu nahi detse eta, bidez batez, udan Saharatik etortzen diran umiak etxian hartzeko prest daguaz famelixak bihar dittuela gogoratu. Baten batek interesa bada, informaziño gehixago jasotzeko alkarteko ordezkariexekin kontaktuan ipiñi leike.



Helbidea
URKIZU PASEALEKUA, 13
 Orbeako dorreetako
 1. solairua
 ☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

1 Kardiologia	11 Barne Medikuntza
2 Zirugia	12 Radiologia
3 Dermatologia	13 Urologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	14 Traumatologia
5 Anlisi Klinikoak	15 Koloproktologia
6 Ortodontzia	16 Erizaintza
7 Otorrinolaringologia	17 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa
8 Pediatria	18 Foto-depilazio Unitatea
9 Psikiatria	
10 Neurologia (BERRIA)	

Funeraria Ehorztetxe Mugica

EIBAR

Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
 Otaola, 27

ELGOIBAR

Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
 (Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra
 ☎ 943 20 19 51 | www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea **GRUPO Funeuskadi**

asteko
32
datua

plaza dagoz Egogain gerontologikuan buru-arazuak dakenendako. 300.000 euro kostau daben biharrerri esker, 30etik 32rako saltua emon dau-eta bertako plazen kopuruak. Egogainen daguzenen batatzbesteko edadia 84 urtekua da eta, 145 lagunren artian, 120 andrazkuak dira.



Eibarko Kantuzaleak Bilbon

Eibarko Kantuzaleak taldekuak aurreko zapatuan Bilbon ospatu eben Euskal Herria Kantuz egunian egon ziran, Euskal Herri osotik juandako beste talde morduarekin batera kantatzen eta eguna jai giro ederrian pasatzen. Euskal Kantuzaleen Elkartek antolatutako jaialdixak 600 abeslari baiño gehixago batzia lortu eban eta, kantuarekin batera, bertsuak, dantzak eta kalejirak egin zittuen egun guztian.

II. Errepublika gogoratzeko ekitaldixak

Datozen egunetarako antolatutako ekitaldixekin gogoratuko dogu atzera be Eibar izan zala II. Errepublika aldarrikatzen lehelengua. Ahaztuak 1936-1977 alkartekuak bixar arratsaldian, 18.00etan ekingo detse ekitaldixeri Untzagan eta, errepublikaren aldarrikapena ez eze, urtero holako egunian eurekin batera egoten zan eta oin dala gitxi hil dan Casimiro Perez be (Roberto Perez Jauregiren aitta) omenduko dabe. Eta 19.00etan "Rojo. Cancionero y banderas rotas"

izenburuari jarraituta kantaldixa eskinduko dabe Salvador Amor eta Gabriel Ortegak.

Ezker Anitzak domeka goizian ekingo detse ekitaldixeri, 10.00ak aldian Ermutik Eibarrera



bidian urtengo daben mar-txa republikanuaerekin. Eguardixan danak Untzagan batu eta ekitaldi politikua hasiko da eta, jarraixan, Marcelo Usabiaga militante komunistak igoko dau banderia Untzagan eta Iruki sagardotegixan bazkalduta agurtuko dittue ekitaldixak.

Eibarko Sozialistak domekan hasiko dittue ospakizunak, eguardixan Errepublikaren banderia Casa del Pueblo-ko balkoian igota. Jarraixan Euskadiko Gazte Sozialistak II. Erre-

publikako manifestua irakurri eta ekitaldi politikuari ekingo detse Txaltxa Zelaixan (auditoxian). Eta astelehenian, eguardixan txapli-guak botata gogoratuko dabe aldarrikapena.

Diru-laguntza hitzarmenak siñatzen

Eguazten arratsaldian diru-laguntza izendunen hitzarmenak siñatzeko ekitaldixa hartu eban udaletxeko pleno aretuak. Kirol, kultura eta euskalgintza arluetan biharra egitten daben herriko 37 alkartek siñatu zittuen udalarekin diru-laguntzak jasotzeko hitzarmenak. Hórren artian 201.210 euro banatuko dittu udalak, urtian zihar egitten dittuenen gastuekin lagundu eta alkartiak 44 jarduera burutu deixen: diru horretatik 81.862 euro euskeriarekin lotutako ekimeneri laguntzeko erabiliko dira, beste 64.310 euro kulturekitaldixak egitteko eta gaiñerako 55.038 euroak kirol ekitaldixak eta gaztiendako jarduerak prepatzen dittuenen artian banatuko dittue.



ENRIQUE GARCIA GARCIA

I. urteurrena: 2013-IV-14

*Beti maite izan zaitugu
eta beti maitatuko zaitugu.*

ZURE FAMILIA



Hiruren arteko lehia Isasiko aldapan Valenciaga erabakitzeke

Ixuan sortutako ihesaldiak markatu zuen Valenciaga Memorialaren azken edizioa, gainean osatutako hirukoteak ondo eutsi baitzion lortutako abantailari. Mutua Levanteko

Cristian Cañada irabazlearen denbora berean helmugaratu zen Alberto Gallego (Bicicletas Rodriguez) eta eurenandik hiru segundora zapaldu zuen helmugako marra Telco'm taldeko



Probaren irteeran omenaldia egin zitzaion Enrike Orbea zenari, txirrindularitza eta errugbiko mediku laguntzaile finari.

Kadeteentzako Otxoa Memoriala jokatu da etzi

Eibarko Txirrindulari Elkarteak bizi-bizi jarraitzen du txirrindularitza proben egutegia osatzen eta, horrela, domekan 1. eta 2. urteko kadeteentzako Otxoa Memoriala jokatu da gurean. Lasterketak 63 kilometro izango ditu eta, goizeko 10.30etan Azitainen irtenda, 12.00ak bueltan amaituko da Urkizu pasealekuan. Lehenengo Elgoibarreraino joango dira, Maltzagara bueltatu eta Oñatira jo eta, handik San Prudentziotik eta Bergaratik Eibarera bueltatzeko.



Cañada, Gallego eta Iburguren: hiru lehen sailkatuak podiumean. Ixuan aurrera egin eta helmugaraino iritsi ziren. LEIRE ITURBE

Antton Iburgurenek. 110 txirrindularik amaitu zuten afizionatu mailan dagoen estatuko lasterketa garrantzitsuena: eguraldia lagun, 65 erretiratu ziren bakarrik, aurreko urteetan baino gutxiago. Iburguren izan zen euskaldun onena eta, horrez gain, mendiko sailkapena ere bereganatu zuen; tarteko helmuge-

tako sailkapena Adrian Alvaradorentzat izan zen eta taldekoak Lizartek irabazi zuen. Gure herriko Debabarrena taldeko ordezkari onena Hernandez izan zen, 27. postuan, irabazlearengandik 4'52"-ra; Xabier Bengoetxeak, Jokin Etxabek, Ion Riverok eta Beñat Etxabek ere proba amitu zuten.



Otxoa Memorialeko babesle berria.

Bihar amaituko den EHko Itzulia Eibartik abiatuko da gaur

Gaur 13.05etan abiatuko da Untzagatik Euskal Herriko Itzuliaren 5. etapa. Calbetonetik Urkizuraino jaitsi eta, Arraguetatik igota, San Juan kaletik hartuko du tropelak Ermurako bidea. Etapa Markinan amaitu-

ko da, 17.00ak aldera, aurretik 160 kilometro bete eta gero. Bihar arratsaldean, bestalde, azken etapa jokatu da Markina-Xemeinen bertan, erlojuz kontrako modalitatean eta 26 kilometroko distantzian.

Ale hau inprentara bidaltzerakoan Arraten amaitu behar zen atzoko etapa jokatu barik zegoen eta Alberto Contador, Tony Martin eta Michael Matthews izan ziren aurreko hiru etapetako irabazleak.

BETI BERANDU ETA HAIN GOIZ JUN...

KAIXO, KOLDO! Hau bai dala paradoja, beti toki guztietara berandu heltzen ziran... eta berandu heldu bihar dan toki bakarrera golzegi Juan zara. **ESKERRIK ASKO** izandako izaera eta jarrerengaittik eta hainbestetan ni aguantatziarren. **EZ ZAITTUT INOIZ AHAZTUKO!**

Urak dakarrena urak daroia... zuk emondakua gurekin geratzen da. Eskerrik asko **MUNDUKO ANAIA ONENA** izatiagaittik!! **ANARTZ**



Eibar FT-ren milagarren partidua 2. A mailan

Domekan Ipuruan Teneriferen aurka jokatu duen partidua Eibarrek zilarrezko mailan jokatu duen milagarrena izango da. Neurketa 18.00etan hasiko da eta liga amaitzeko etxean geratzen zaizkion bostetatik lehena izango dute Garitanoren mutilek. Klubak mila gonbidapen banatu ditu abonatuaren artean eta domekan zaletuek taldeak behar dituen puntuak lortzen lagunduko dute.

Saria klubarentzat

Ramon Rubial Fundazioak kirol erakunde onenaren saria eman zion zapatuan Eibar FT-ri. PSErekin lotutako erakunde

horrek ematen dituen sarien 8. edizioan, Alex Aranzabalek eta Miguel de los Toyos alkateak Jon Alberdi artistaren "Atoiontzia itsasadarrean" izenburuko eskultura jaso zuten.

Zabalkuntza kontrolatua

Astelehenean egindako baztarrean onartu zuten, kapital-zabalkuntza kontrolatua egingo du klubak. Kapital sozialaren ia erdia egon zen ordezkatura eta klubaren nortasuna ez galtzeko neurriak hartu zituen. Herenegun martxan ipinitako akzioen salmentak maiatzaren 7ra arte iraungo du, lehenengo fase honetan



gaur egungo akziodunekin (sei akzio gehienez akzio bakoitzeko, akzio gehigarrien kopurua 2.000n muga izanez); maiatzaren 7tik uztailaren 24ra arte iraungo duen bigarren fasean, bestalde, akziodun berrien ordua izango da

eta hor ere, gehienez jota, ezingo dute 2.000 akzio baino gehiago erosi. Klubak, gainera, marketing plana egin du zabalkuntzarako, Banco Sabadell Guipuzcoanorekin bazkideentzako hainbat erraztasun lotuta.

Somos Eibar Eskubaloia txapelkun estatuko 1. mailan

Denbora kontua zen eta, azkenean, heldu zen. Gure herriko eskubaloia lehen taldeak matematikoki txapela jantzi zuen Santoñan 21-26 irabazi eta gero; horrela, Ohorezko B Dibisiora igotzeko faserako txartela lortu du. Fasea maiatzeko lehen asteburuan jokatu da eta Eibarri egokituko zaizkion aurkariak apirilaren 14an Madrilen izango den zozketan ja-

kingo dira. Norgehiagokaren amaieran jokalariekin batera Eibartik joandako ikusleek hasitako ospakizunek bihar izango dute jarraipena 19.00tan Zumaiaiko Pulporen aurka jokatu den azken norgehiagokaren ondoren.

Mutilen Tekniker jubenilak Euskadiko Txapelketako lauko finala jokatu zuen Zumaian (Pulpo, Euskalduna eta Loiola-



ren aurka) eta, irabazterik izan ez zuen arren, hilaren amaie-

ran jokatu den Espainiako Txapelketarako sailkatu da.

Armagiñen Eguna ospatuko dute hilaren 26an

Lehen Erregional mailan denboraldi honetan debutatu duen foball talde berriak bere eguna ospatuko du hilaren 26an, egun horretan T. Etxebarria kalean kokatuko duen txosna baten inguruan. Saldu-

ko diren edari eta janariekin batera, hainbat zozketa eta joko izango dira, musika-ekin girotuta.

Azken jardunaldian Rotetari irabazi zioten igoera faseko partiduan, maila bereko

Kopako txapelketan gure herriko beste bi taldeek batek berdindu (Eibartarrak-ek Bergararekin) eta besteak galdu (Urkik Arizmendi liderraren zelaian) egiten zuten bitartean.



- **tartak**
- **enkarguak etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

LIKIDAZIOA

Valenciaga



merkalitatea

%50eko
deskontuak

K O N F E K Z I O A K

Zuloagatarren, 7

☎ 943 20 22 33



Mendi-eski irteera Vignemalera

Klub Deportiboak antolatuta, azken asteburuan mendi-eski irteera egin zuten klubeko 25 lagunek. Pont d'Espagnek, Oulettes de Gaube

aterpeak eta Petit Vignemale gailurrak osatu zuten ibilbidea. Zapatuan zerua estalita izan bazen ere, eguzkia lagun izan zuten domekan.

Irujoren lesioa dela-eta pilota jaialdia Astelenan

Binakako txapelketaren azken jardunaldia bitan banatu da, Irujoren lesioak hurrengo astebururako laga baitu bigarren partidua. Hori dela-eta, Astelenak jaialdi berria hartuko du domekan, tartean promozio txapelketako Gorka-Peñagarikano (azken honek Miguel Merinoren postua hartuko du) eta Mendizabal III.a-Tolosa bikoteen arteko partidurekin. Partidu nagusia ez da nolana hikoia izango: txapelketa nagusian jardun duten bi bikoteen arteko pilotariak jardungo dute, baina bikotekideak aldatuta (Titin III.a eta Zabaleta Ezkurdia eta Merino II.aren aurka).

Juanjo Romero munduko duatloi txapelketara

Txartela aurreko zapatuan eskuratu zuen, Avilesen jokatu-tako Espainiako duatloi txapelketan, bere mailan 6. postuan sailkatu ondoren. Egun berean Delteco Eibar Triatloi Taldeko lau ordezkari izan ziren Gernikako duatloian: Roberto Gartzia, Joseba Ortega, Andoni Mayo eta Javier Murcia.



berriak



JIU-JITSU

Domekan Gasteizen jokatu-tako kadete eta infantil mailako Euskadiko txapelketan, Kalamua Klubeko Nekane Muguruzak urrezko domina eskuratu zuen eta Julen Ramonek brontzezkoa. Iker Martinez bosgarren sailkatu zen eta epaile lanetan jardun zuten Juan Ramon Del Barriok eta Manu Agirrek. Muguruzak Euskadiko selekzioarekin hartuko du parte Espainiako txapelketetan.

ORDUTEGI BERRIAK

IPURUA kiroldegian / Hilaren 17tik 21era: 09.00/13.00; Zapatuan, hilaren 19an: baita 16.00/20.00
UNBE kirolgunea / Hilaren 17tik 21era: 09.00/20.00
ORBEA kiroldegia / Hilaren 17tik 21era: 09.00-14.00; Zapatuan, hilaren 19an: baita 17.00/20.00; 22an: itxita
 Hilaren 23tik 25era: igerilekua eta SPA itxita; Hilaren 26 eta 27an: SPA itxita

Eibar Foball Taldearen 75. urteurrena (1940-2015)

Aste Santuan ere aukera dugue zuen argazkia guri bidaltzeko!!



Argazkiak 1940-2015@sdeibar.com helbidera bidali behar dira, jpg formatuan, Eibar KE-ren web orrira igotzeko. Atxikitu argazkiari agertzen den tokiaren deskribapena. Eibar FFren lotura duten motiboak agertu beharko dira: kamisetak, banderinak, bufandak eta horrelakoak. 2016ko urtarrean jakinaraziko da zein izan den argazki irabazlea. Bost sari banatuko dira: kamiseta ofiziala, taldeko jokalariek sinatuta; Eibar FFren ligako partidu bat ikusteko palkorako bi sarrera; aurrekoaren berdina, baina tribunako bi sarrera; Ipuruako instalazioetatik bisita gidatua; eta Eibar FFren 75. urteurreneko kamiseta oroigarria.



Eibar

Munduan

Aurreko asteko martitzenean joan zitzaigun Koldo Mitxelena Zumaran lagunaren heriotza dela-eta, doluminak eta animoak emateko mezuak etenbarik jasotzen segitzen dugu oraindik ere. Zuetariko batzuk doluminak zuzenean helarazi dizkiguzue eta beste askok, berriz, telefonoz, idatziz, telegrama bidez, internet bitartez... pentsa daitezkeen bide guztietatik azaldu diguzue zuen atsekabe eta elkartasuna. ...eta kitto! osatzen dugunok ahal izan dugun moduan zuetariko bakoitzari gure eskerrik beroena emateko erantzuten ahalegindu gara, baina zerrenda luze-luzea da eta bakarren bat ahaztu badugu barkamena eskatu eta gure esker ona lerro hauen bitartez azaldu nahi diogu bihotz-bihotzez.

Zorigaitzeko albisteak oihartzun handia izan du Eibarko zein kanpoko komunikabideetan eta Euskal Herri mailako erakunde, elkarte eta beste hamaika taldetan tristura handia eragin du. Egunotan jaso ditugun mezu zerrenda amaigabetik batzuk hartu eta orrialde bi hauetan zuekin partekatu nahi izan dugu eta berriz ere gure eskerrik beroena zuetariko bakoitzari, benetan estimatzen dugu zuengandik jaso dugun elkartasuna.



Koldo Mitxelena Sostoa Abesbatza aurkezten koroaren emanaldi batean.

*Koldoren izenean, ...eta kitto!-ko guztion partetik: **ESKERRIK ASKO***

URKIZU ESKOLATIK KOLDO OROITUZ

Eibarko eskoletako Euskara Batzordeetan dihardugunok aspalditik ezagutzen genuen Koldo. Urkizu eskolan behintzat, beti hartu izan ditugu kontuan ...eta kitto! elkarteak antolatutako ekintzetatik eskolumeentzat baliagarri izan zitezkeenak, eta gure Urteko Planean txertatu izan ohi ditugu (Ipurterre, Txikitto, Aratosteetako karaoketa, Gantxila eta beste hainbat eta hainbat). Ekintza horietako batzuetan Koldok zuzen zuzenean parte hartzen zuen eta beste batzuetan, berriz, bere partaide-tza mugatuagoa izan arren, ez zen inoiz oso urruti ibiliko: mezua pasatzeko, galdera egiteko, ideia emateko edo beharrezkoa zena bideratzeko. Haurrentzat eta irakasle askorentzat ere, ezkutukoa den lana egiten zuen Koldok; ezkutuko lana bai, baina behar-beharrezkoa ere.

Urte guzti hauetan, zenbat bilera, Koldo, zenbat dei, zenbat lantxo, zenbat epe... Batzuetan mereziko genuen, baina ez zenigun errietarik egiten. Alderantziz, beti aurpegi onez eta ekitera bultzatuz hartzen gintuzun. Hurrengo Txikitto! aldizkaria jasotzen dugunean, zure argazki bati begira, haurrei zutaz hitz egingo diegu. Jakin dezatela zure moduko pertsonak behar ditugula; eurak ere, Zeus bezala, ekarpena egin behariko lioketela Eibarko herriari eta euskarari.

Zauden toki horretan, Fernadorekin eta beste batzuekin, ziur gaude bazterrak asintzen hasiak izango zaretela eta, gu horra joaterako, mar txan izango dituzuela mila ekimen eta, berriz ere, han, bestaldean, zuen bidelagun izango gaituzuela.

Ez adiorik, Koldo.



KOLDO: ZURETZAT SANANDRESETIK

San Andres eskolatik esker beroenak, euskarari emandako une gozoenak, gogora dezagun Eibarko herri den-denak, euskarari egindako eder-ederrenak.

Hemendik bidaltzen dugu proposamena, oroimenean beti egotearena, alda dezagun Ipurterre izena, bere orde, zergatik ez Koldo Mitxelena?

LABOARI KONTRA EGIN NAHI DIOT GAUR

Naturaz kontra aritzen da bizitza batzuetan. Gaur Mikel Laboari arrazoia kendu nahi izan diot nire gogoetetan; gaur bakarrik. Ez dut uste inoiz eten daitekeenik ama eta seme edo alaba batzen dituen zilbor-hestea. Ez nahi ez dugulako, ezin delako baizik. Hezur berrikan gaudenean gelditzen gara gatibu; zorionaren, arduraren, bizi-pozaren, eta, batzuetan, tristuraren esku artean preso. Nahita eta nahigabe, aldi berean.

Gogoaren zilbor-heste sendoak harrapatzen gaitu biok/hirurok/laurok. Hasieran, sendoa da biontzat lotura; gerora, berriz, sendo izaten jarraituko du amarentzat, ez horrenbeste seme edo alabarentzat, akaso. Horregatik, oreka baten bila, askatasun hori bermatu nahian, bihurtzen da zilbor-hestea ikusezin; baina hor jarraitzen du loturak, pita-haria bailitzan, ikusezin baina sendo.

Norbaitek, zerbaitek, inork pita-haria apurtzen duenean, bortxaz, derrigorrean, orduan, barrua urra-

tzen da; eta, gerora, bihotza ez da bihotz; amasa ez da arnas; pausoa ez da pauso. Ama batek ez luke semea edo alaba hilda ikusi behar. Gurasoek ez dute semea edo alaba hilda ikusterik merezi. Naturaz kontra aritzen da bizitza batzuetan, eta injustua bezain gordin da.

Zorionez, ez dut halakorik bizi izan orain artean; baina ez dut uste enpatia-ariketa gogorregirik egin behar denik hala dela pentsatzeko. Ez dut halakorik bizitzetik nahi; ez diot inori halakorik desio. Gertatzen dira halakoak, ordea, eta gertatzen direlako nago haserre. Horregatik, ama-aita-guraso horiek guztiak gogoratu nahi ditut hemen, gaur: gerran, istripuan, lanean, bidean, han eta hemen umea galdu duten guraso horiek laztandu nahi ditut. Eta, gaur, bereziki Carmen eta Jose Ramon, sofán galdu dutelako semea Koldo. Laztan bana. Agur, Koldo.

ANE SARASKETA

BIDELAGUNA

Gaur Koldo Mitxelena Zumaran kolaborazioa argitaratu behar nuen, *Marimaistraren* bigarren denboraldiaz. Kazetaritza fakultatean ezagutu genuen elkar, ikaskideak baikinen. UEUK Eibarrera ekarri ninduen lanera urte batzuk beranduago, eta berririo harremanetan jarri. Azken bi urteetan, gainera, Barretartiako kolaboratzailea izan da. Pasa den astean hitz egiten aritu ginen. Euskarak bidelagun bikaina galdu du. Eta nik, guk, lagun bat. Agur, Koldo.

IDOIA TORREGARAI



“LUZAROAN DENA BAIZIK”

(...)

Zorigailteaz, denek ez daukate zori hori. Eta zinez erdiragarria da Koldo Mitxelena 39 urtetan bat-batean hil dela jakitea. Lan anitz egin zuen euskarazko tokiko prentsaren alde, Eibarko ...eta kitto! aldizkari-ko koordinatzaile gisa bereziki. Eta anitz eginen zuen oraino; gauza anitz gelditzen zitzaion bizitzeko. Gazte hil diren artistek obra ederra utzi dute, baina 70-80 urtetan lan bikainak egin dituzte anitzek. Ez dugu jakinen gazterik hil zi-

renek zer eskainiko ziguten zahartu arte bizi balira.

Gordina da hori erratea eta idaztea, eta nahiago izaten dugu ihes egin, baina hala da: ez dakigu noiz hilko garen. Eta horrelakotetan jabetzen gara biziaren egunero gozatu behar dugula, ahalegindu behar dugula egun txarrak saihesten, nahiz eta ez beti gure esku izan. “Mundura ez ginen sufritzeko jai”, Mikel Urdangarinek dioen bezala; “topa dagigun eta bakean bizi gaitezen betiko”.

ENEKO BIDEGAIN

OMENALDI XUMEA

(...)

Mikel Laboa kantariaren eskutik amaiera. Zentro hau tristatu duen albiste bat eman beharrean gara. Aste honetan jakin dugu Koldo Mitxelena Zumaran, Eibarko “...eta kitto!” herri aldizkari-ko koordinatzailea hil dela. Kazetaritza ikasten ari zela hasi zen Eibarko aldizkarian lanean, 1993an. Kolaboratzaile hasieran, eta langile moduan 1998. urtetik aurrera. Geroztik izan da “...eta kitto!” Euskara Elkartearen koordinatzailea. “Euskaren aldeko langile nekaztin” gisa deskribatu dute

haren lankideek. Aste honetan bertan berandu arte lanean aritu zela ere jakin dugu Errealitatearen Interpretazio Zentroan. Zinezalea zen eta berarekin noizbait hitz egiteko aukera izan zuenak badaki oso tipo majoa zela. Mitxelena bezalako jendeak egindako lan konprometituari esker egiten du aurrera euskarak. Maiz esker txarrekoa eta prekarioa den lanari esker. Hari omenaldi xumea eskainiz itxiko dugu aste honetako Errealitatearen Interpretazio Zentroa.

GORKA BEREZIARTUA

KOLDO MITXELENA ZUMARAN

*Astixako lagunak
ez zaitugu ahazten.
Bai, ostera, faltan botatzen.*



GREMIOEN GIDA

ALTZARIAK

SATMOBEL
ZURE ETXeko ALTZARIEN KONPONKETA ETA GARRAIOA

Eibar - Tlf: 608 076 054

AROTZAK

IÑAKI

Egurrezko mota guztietako lanak Ateak - Tarimak Altzariak

Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 35 55

ELEKTRIZITATEA

943 530 356 **electricidad alberto**
688 674 242

INSTALAZIOAK ETA instalaciones y mantenimiento
MANTENIMENDUA

WWW.ELECTRICIDADALBERTO.COM
dasilvaalberto@hotmail.es

ANTENAK

BALATZ c.s.

Instalakuntzak eta konponketak antenak - telebista

Bidebarrieta, 37 Tfnoa. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net Faxa. 943 20 04 94

SUKALDE ALTZARIAK
*
AROTZEGIA
Iparragirre Anaiak

F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

Ego-Gain, 9 ac. ARGIZTAPENA,
KONPONKETAK
ETA INSTALAZIO
ELEKTRIKOAK

barra 677 51 24 62
943 20 06 97

Ego Gain, 2 - Bac **trinmer**
Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com

**TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK**

ulmar
S.L.
metalezko eraikuntzak

aluminiozko eta PVC-ko aroztegia baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA
EIBARREN, Ur-kizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

Tel. 610 532 922

THELECER

TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

24 orduko urgentziak

ERAIKINEN MANTENUA

I.T.E. INSPECCION TECNICA DE EDIFICIOS

← →

ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOA **E.I.T.**
info@ajtoficna.com tlf. 943 20 18 30
AJT Zihurtasuna s.l.p.
Toribio Etxebarria, 4 behea A



Informazio gehiagorako



943 20 67 76



GARBIKETAK

Limpieza Multiservicio Eibar

Superficie mota guztietako garbiketa eta mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615
Mobila 688 609 171
www.multiservicioeibar.com Barrena, 21 - 1. F

TREJO GARBIKETAK S.L.

Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Soraluze

Garbiketa eta mantenimendua

IGELTSEROAK

CAMILO ALVAREZ IGELTSEKITZA

OROKORREAN

- Barne erreformak (sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)
- Gremioen koordinaketa

Jardiñeta, 25 - behea
620 060 104 (Ernesto) / 600 465 789 (Fran)

irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSEKITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA

eraikuntzak erreformak igeltsekitza

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

ITURGINTZA

Gasa Kalefakzioa
Klimatizazioa
Eguzki Energia

Jardines Iturgintza

Tel. 943 206 913
615 782 638
615 782 637
Fax. 943 254 929

Jardiñeta, 11 B
fontaneriajardines@euskalnet.net

MUGICA ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANGROHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

Egiguretarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia

TAILERRA: ERREKATXU, 3an
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristeriaacha.com **ERAKUSKETA**
eta faxa: 943 203 903 Arikitzaneko Zubian

PINTURAK

DECORACIONES
AIXA
José Luis Irionda

Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etixerakoak
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxa.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea

baglietto PINTOREAK

Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa

Errebal, 21 Tel/Fax: 943 20 19 22

PINTURAS ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A
info@pinturasarrate.com
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

MALVAR PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

VICTOR GONZALEZ FRAIZ PINTURA OROKORREAN

BARNE eta KANPOko dekorazioa eta pintura,
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com

La Salle Eguna eta antzerki solidarioa


Urteroko martxari jarraituta, aurten ere La Salle Astea ospatu dute herriko ikastetxe bietan, Isasin eta Azitainen. Atzo goizean Azitaingo ikasle guztiek play-back lehiaketan parte hartu zuten umore onean eta gaur, berriz, mezarekin ekin diote egunari ikastetxe bietan. Ondoren, ikasleei ogi-tartekoak banatu eta herri kirolak eta jokoak egiteko asmoa zuten. Azitainen, gainera, baikailao lehiaketa egingo dute



eta Argazki Rallyko lanen erakusketa ikusteko aukera ere izango da.

Bestalde, 1. batxilergoko ikasleek 4. DBH-ko hainbat ikaslek lagunduta La Salle Azitainen "azken hilbetetan ilusio handiarekin" prestatzen ibili diren "Sabina eta sorginak" antzezlan gaur goizean estreinatu dute Hezkuntza Esparruko aretoan, ikasleentzat bakarrik eskaini duten emanaldian. Aurreratu digutenez, "neska gazte batek sorgin talde batekin topo egitean bizi di-

tuen gorabehera dibertigarriekin disfrutatzeko aukera egongo da". Antzezikizuna gaur bertan 18.00etan hasita publiko guztiarentzat errepikatuko dute, baina sarrera 3 euro kobratuta. Izan ere, ikastetxeak PROYDE-PROEGA GKE-n birtartez garatzen duen konpromezuari helduta, sarreraren salmentan batutako dirua Argentinan, Kordobako "Malvinas Argentinas" auzoko S. Hector Valdivielso "eskolaren giza eta hezkuntza programaren hobekuntza eta handitzea bultzatu nahi dugu".



Gazteentzat robotika ikastaroa antolatu dute

Pazko astean ikasleak oporretan egongo direla aprobetxatuta, udalak robotikaren inguruko ikastaroa antolatu du Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako eta DBH-ko 1., 2., 3. eta 4. mailako ikasleentzat. Klaseak Itzamna akademiakoek emango dituzte, umeen Juan San Martin liburutegian apirilaren 22, 23, 24 eta 25ean eta hiru ordutegi daude aukeran, eskaera egiteko orrian norberak nahiago duena hautatu dezan: 11.30etatik 13.00era, 16.00etatik 17.30etara eta 17.30etatik 19.00etara. Izena emateko orria uda-

laren webgunetik zuzenean jaitsi daiteke edo, bestela, zuzenean Pegoran eskatu, tramitea bertan egin beharko da-eta. Prezioa 5 eurokoa da Eibaren errolatuta daudenentzat eta, bestela, kanpoan bizi direnek 8 euro ordaindu beharko dituzte. Ikastaroan parte hartzen dutenek, besteak beste, zientzia eta teknologiaren mundu ikusgarrian murgiltzeko aukera izango dute, horretarako robotak erabilia. Klaseetan robotak diseinatzen, eraikitzen eta programatzen trebatuko dira gazteak.

Aire berriak!

Estaziño, 4
943 254776

Khôl Estilistak

Radio Eibar

CADENA

SEZ

104,0 FM

Iradi

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29



Urte hasieran lehenengoz antolatutako enplegu tailerren inguruko erantzun ona ikusita, apiriletik ekainera bitartean bigarren tailer-sorta eskainiko dute Portalean. Astean behin, eguen goizetan 10.00etatik 12.00etara ematen diren tailerrak dohainik dira eta parte hartzera animatzen direnek lana topatzeko benetan baliagarriak egingo zaizkion gaietan trebatzeko aukera izango dute.

OLAIA GERRIKABEITIA (Daiteke):

“Enplegu-tailerak alderik onena erakusteko oso lagungarriak dira”

- Nolatan ekin diozue horrelako tailerrak eskaintzeari?

Formakuntza eta enplegu arloei lotutako tailerrak aurretik ere ematen genituen Daiteken eta aurtego urtarrilean Eibarren berriz ere horiek eskaintzen hasi ginen, udalarekin eta liburutegiarekin elkarlanean. Gainera, Lanbidek taldeka eskaintzen ari garen tailer hauek diruz laguntzen ditu. Horrelako gaiak taldeka jorratzea interesgarria iruditzen zaigu, horrela egiteko modu ezberdinak ikusi eta batzuk besteen-gandik asko ikasteko aukera izaten dutelako. Ariketa txikien bitartez praktikotasunera gerturatzeko ahalegina egiten dugu. Debegearen kolaborazioa ere badugu. Adibidez, apirilean eskainiko diren tailerretako bat Vanesa Hortas bertako lankideak emango du.

- Salbuespenak salbuespen, Daiteke arduratzen da tailerrak antolatu eta ematearekin, baina zeintzuk zarete zuek?

Daiteke berez gizarte aholkularitza bat da eta, Eibarren ez ezik, Donostian, Aretxabaletan eta Hernanin ere badago. Eibarko bulegoa Debegeako instalazioetan, Azitaingo industrialdean dago eta Ainhoa nire lankideak eta biok egiten dugu beharra. Daiteken, besteak beste, enpleguari lotutako orientazioa, formakuntza, genero aholkularitza eta beste hainbat zerbitzu eskaintzen ditugu eta, bertako beharginak bata bestearengandik oso ezberdinak izan arren, gure arteko lotura sendoa da. Ilusioak, etenbariko hobekuntzak eta bes-

teekiko arreta griñak, batez ere horiek lotzen gaitu.

- Astean behin ematen dituzuen tailer hauek zeinentzat pentsatuta daude? Edo zeinek eman dezake izena?

Eskaintzen ditugun zerbitzuak Lanbidek diruz laguntzen ditu eta, beraz, tailerretan parte hartzea doan da. Eskatzen den baldintza bakarra Lanbiden izena emanda, alta eginda egotea da. Lan bila dabilen edonorentzat baliagarriak izateko pentsatuta daude eta, beraz, gaur egun beharrea dagoen norbaitek beste lan baten bila badabil, horrek ere badauka tailerretan parte hartzeko aukera. Izena emateko nahikoa da 943820180 telefono zenbakira deitzea edo olaia@daiteke.com helbidera idaztea.

- Apirileko zerrendan, gehienak lan bila dabilen edozeinek ezinbestean pasatu beharko dituen egoerei aurre egiten irakasteko tailerrak dira. Orohar, horrelako kontuetan oso galduta ibiltzen da jendea?

Askotan ez dugu jakiten nora jo, nondik hasi. Denetariko iritziak daude eta informazio mordoia. Gainera, lana bilatzeko modua bera asko aldatu da. Norbera bere bizitzaren jabe izan behar da eta, horretarako, ezinbestekoa da norbere burua

ezagutzea, erabiltzen diren metodo eta iturriak ezagutzea eta, behin horiek argituta, norberarekin bat datozen metodo eta erak aplikatzea. Horrelakoak lantzean, bakoitzak bere buruarengan duen konfidantza maila areagotzea lortzen da. Den-dena ez dago gure esku, jakina, baina behintzat gure esku dagoen guztia egiten ahalegindu beharko dugu, lan merkatuan dauden aukerak aurkitzeko modu ezberdinak probatu...

- Beti lortzen da entrebista baten aurretik sortzen diren lotsak, beldurrak... gainditzea?

Noski. Denok daukagu ikasteko ahalmena eta ikasketa prozesu horretan praktikak zein kontzientzia hartzeak zeresan handia daukate. Entrebistan nola jokatu, bakoitzak ikusi beharreko zerbait da. Gutariko bakoitza gure bizitzaren eta jokabideen jabe izan behar dugu, erabakia norberak hartu beharko du. Baina erabaki hori kontzientea izateko, inpultsoz sortutako erreakzioa ez izateko, aurretik prestakuntza prozesu bat egotea beharrezkoa da. Eta horretarako primeran etorriko zaigu nolako galderak egiten diren eta guk horiei nola erantzungo geniekeen aurretik jakitea, adibidez. Edo gure burua elkarrizketatzailearen lekuan ipintzeak, berak gure erantzunak-eta nola interpretatu ditzakeen ulertzen lagunduko digu. Bila gabiltzan aukera hori aprobetxatzeko, gure alderik onena erakusteko, urduritasuna gainditzeko... horiek guztiak lortzeko aukera paregabea ematen dute tailerrek.

“Eskaintzen ditugun zerbitzuak Lanbidek diruz laguntzen ditu eta tailerretan parte hartzea doan da”



JUAN ALDAI (Antzerki Jardunaldiak)

"Sei funtzioetan geratu gara sarrerarik gabe"

Lan bakarra geratzen denean Antzerki Jardunaldiei agur esateko, Juan Aldai antolatzaileetakoarekin egon gara jardunaldiok zelan joan diren jakiteko asmoz. Espero zutenari erantzun diotela dio Aldaik, ikusleen aldetik izandako gorakadarekin batera. Hilabete eta erdiko antzerki saioa osasuntsu dago, beraz; jarraitzeko prest. Eskolarteko Antzerki Erakustokia dute orain ate joka, aurten bakarrik talde profesionalekin egingo dutena.

- Zer moduz joan da 37. edizioa? Izan da nabarmentzeko moduko aldaketarik?

Hitz gutxitan esateko, aurreko edizioetako parametroetan murgildu da: bai programazio arloan, baita jendearen erantzunari erreparatuz. Pertsonalki bai ikusten dudala behar bezala bete ez dugun zulo txoko bat: La Zarandaren lana programazioan zegoenetik beste egun batera pasatu behar izan genuen eta, aurkezpenaren hala adierazi bagenuen eta komunikabideetan ere jakinarazi, bederatzi lagun etorri ziren okerreko datan. Bederatzi horiek lan horretaz ezin gozatu izana niretzat okerra izan da eta sentitzen dut. **- Eta zuk puntu beltza deitzen diozun hori kenduta, zein lanek bete zaituzte gehien?**

Maila artistikoan lan ikusgarriekin gozatu ahal izan dugu, maila txukunetik haratgo joanda. Horrelakoetan, gurasoei euren seme-alabekin gertatzen zaien modura, zaila da esatea zein izan den guapoena. "Hamlet"-ena ez dugu oraindik ikusi eta badirudi euskal antzerkigintzan beste zoezer eskaini dezakeela. Ikusitakoan artean, "Ajax" aipatuko nuke: drama bikaina da Badajozekoena. **- Jardunaldiekin amaitzeko "Giulio Cesare" geratzen zaigu. Horrek badakar beritasuna: azpigitulatu izango dela.**

Apustua da eta guretzako lehenetariko esperientzia halakorik egiten. Dena dela, Europan ez da arraroa antzerki lanak, zinean moduan, azpigituluekin eskaintzea. Ikuslegoa hunkituko duen proposamenaren aurrean gaude.

- Ikusleen adinari begiratuta, gaztetzen doaz jardunaldiok?

Ez nuke halakorik esango. Joaquin Reyesek eskainitako bi funtzioek -600 ikusleren bueltan- tipologia apurtu zuten, 35 urtetik beherakoak askoz gehiago izan zirelako. Baina, orokorrean, 60 urtetik bueltan dabilzanak gehiago izaten dira jardunaldiotan. Eta emakume gehiago etortzen da: hor tartea badago.

- Euskal lanak zelan ibili dira? Zein erantzun jaso dute?

Maila ona erakutsi dute eta, esaterako, "Zazpi aldiz elur" ikusten 400 lagunetik gertu izan ziren. Tantrakakoen lana multidisziplinaria da eta oso ondo funtzionatuko duelakoan nago. Karrikakoen "Inungane", bestalde, polita da benetan eta argiztapena ikusgarria.

- Zenbat funtzioetan saldu dira sarrera guztiak?

Sei funtzioetan geratu gara sarrerarik gabe.



Coliseoak kontzertu bikoitza hartuko du gaur

Gaur 20.30etatik aurrera Voces y Cuerdas laukotea eta Opus Cuatro taldea bata bestearen atzetik zuzenean gozatzeko aukera egongo da, Coliseo antzokiak hartuko duen emanaldi bikoitzari esker. Argentinatik datorren Opus Cuatro taldekoak Europan biran dabilta eta, euren aurretik, publikoa girotzen joateko Vicente Ramirez, Eduardo Gordillo, Aitor Errasti eta Marivi Murillo eibartarrek osatutako laukoteak joko du. Sarrerak 10 euro balio du.



Goian, maskaren tailerra. Behean, Gazteizera egindako txangoa..



Asteburu betea berbalagunentzat

...eta kitto! Euskara Elkarteak mintzapraktikako taldeei eskainitzen dizkien ekintza osagarrien artean, pare bat ekitaldi izan genituen aurreko asteburuan. Barixakuan, Gurasoak Berbetan-eko guraso eta horien seme-alabentzat eskulan tailerra antolatu genuen ...eta kitto!-n bertan. Karetak egiten eta makillatzen ederto pasatu zuten ume zein helduek. Eta hurrengo egunean, zapatuan, Gasteizera irteera egin genuen berbalagunekin. Goizean Santa Maria katedrala bisitatu zuten gidari baten laguntzaz. Bazkaldu aurretik alde zaharra ikusi eta bertan bazkaldu eta gero, arratsaldean Gasteizko kaleetan zehar ibili ziren. Hurrengo zita Izarran izango dute berbalagunek, bertan ospatuko baita Mintza Eguna, maiatzaren 31n.



lazko edizioko sari banaketaren irudiak.
SILBIA HERNANDEZ

Ipurterreko irabazleak aukeratu dituzte

Aste honetan bertan aukeratu dituzte aurtengo Ipurterre ipuin lehiaketako irabazleak epai-mahaiko kideek: Lehen Hezkuntzako 1-2. mailako arteen La Salle Isasiko Lucia Palma saritu dute, "Gauzen kolorea" izenburuko lanarengatik; LH-ko 3-4. mailako arteen, berriz, txapelduna Juan Antonio Mogel ikastolako Peru Ibarbia izan da, "Sukaldariaren ametsa" izenburukoarekin; eta LH-ko 5-6. mailako arteen San Andres herri ikastetxeko Beñat Laskurain nagusitu da, "Puppyren loren lapurreta" izenburuko idazlanarekin. Eta DBH-ko ikasleen artean saria jaso-

tzeko aukeratu dituzten idazle gazte biak Mogel Isasiko ikasleak dira: Nerea Olabari (DBH-ko 1-2. mailan) eta Maialen Martinez (DBH-ko 3-4. mailan).

Euskeraz idatzitako mila lanetik gora aukeratu dituzte herriko ikasleek ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako lehiaketaren edizio honetan. Irabazleei saria banatzeko ekitaldia maiatzaren 14an egingo da, Hezkuntza Esparruko aretoan 10.00etan hasita eta ekitaldian mago batek ikuskizuna eskainiko duela aurreratu digute antolatzai-zaileek.

Sostoaren kontzertu sakroa

Bihar zapatua, 20.00etatik aurrera kontzertu sakroa emango du Sostoa abesbatzak Karmengo Amaren elizan (Karmelitetan). Eibartarrek batera Durangoko Doinuzahar ganbera abesbatzak jardungo du, Jesus Egiguren

zuzendari izendatu berriaren gidaritzapean. 1982an sortutako abesbatzak hamaika kontzertu eta ekitalditan parte hartu du eta sari ugari jaso ditu. Kontzertua hasi aurretik, 19.00etan meza egingo da.



laburrak

LIBURUAREN EGUNA

Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira, datorren apirilaren 23an, 19.30etan Inma Roiz Ulibarriren "Manuela" eleberraren aurkezpena egingo dute liburutegian.

ALTXORREN BILA

Zortzi eta hamar urte bitarteko umeentzako tailerra egingo dute Museoa datorren astean, eguenean, 17.00etatik aurrera (euro bi). Pista-joko modukoa izango da: umeek museoan dagoen gauzen bat bilatu eta identifikatu beharko dute eta, bide batez, horri buruzko gauzak ikasteko aukera izango dute.



PROIEKZIOA

Apirilaren 14an 19.00etan "La maestras de la republica" film-dokumentala emango dute Coliseoan (3 euro). Pilar Perez Solanok zuzendutako pelikulan, Errepublikako sasoiko andereñoen ondare historikoa azaltzen dute, irakasle haietako baten figuratik abiatuta. Dokumentala osatzeko orduan orain arte ikusi gabeko artxibo irudiak erabili dituzte.

JONE ALZAA FERNANDEZ

2. urteurrena (2012-IV-14)



BIHOTZ BIHOTZETIK,
EZ ZAITUGU AHAZTUKO.

Inigo eta Jon Ander Larreategi



○ **Etxeko gotorlekua, auzitan**

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako biztanleen %20,8k euskara erabiltzen dute etxean, 1981ean baino puntu bat gutxiagok. Hori bai, orain dela hogei urte askoz etxe gehiago ziren kide euskaldun bakar bat ere ez zutenak. Euskaldunen soslaia aldatu egin da: gero eta gehiago dira hirietan bizi diren gazteak. Hiriburuen artean, Gasteizek izan du hazkunderik handiena, ezagutza maila apaletik zetorrelako: bertako biztanleen %3,5 ziren euskaldunak 1981ean, eta %21,5era igo zen kopurua 2011n. Donostiak du euskaldun portzentajerik altuena, %40koa, baina Bilbon dago euskal hiztun kopururik handiena: 73.760 (%22,1).

euskararen txokoa

○ **Laguntza, baina ez perfektua**

1.500 karakterera arteko testuak eta web-guneak gaztelaniatik euskarara, euskaratik gaztelaniara eta ingelesetik euskarara itzuliko dituen tresna jarri du martxan Eusko Jaurlaritzak. Idatziz zein ahotsa transkribatuz egin ditzake itzulpenak, eta smartphone eta tabletetan ere erabilgarri dago. Itzultzaileak egoki erabiltzen jakin behar dela nabarmendu dute, "ez ditu eta gure akatsak zuzenduko". Edonola ere, Patxi Baztamika Hizkuntza Politikarako sailburordeak dioenez, "euskara itzultzaileen artean, berak ematen ditu emaitzarik onenak". Aro digitalean murgilduta, euskara Interneteko lehen 40 hizkuntzen artean dago.



Doinu latinoei eskainitako gaua

Aurreko barixakuan jendetza batu zen Coliseoan, hirugarrenez antolatu zuten Musika Latinoaren Jaialdiak erakarrita. Ana Caballero irakasleak gidatuta, taula gainean Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako gitarra ikasle gazteek bikain jardun zuten. Latinamerikar doinuei eskainitako emanaldian, gitarrajole gazteekin batera Musika Eskolako Maria-




Aurreko barixakuko aktuazioetako bat. LEIRE ITURBE

txiak, Nathaliek eta Sebastianek, Borja Rodriguezek eta beste hainbatek ere jardun zuten kantuan.

Eibar Kantuan jaialdirako sarrerak

Udalaren eta Eitb-ren laguntzari esker, Eibarko Txirrindulari Elkarteak Eibar Kantuan jaialdiaren edizio berria antolatu du. Kontzertua Astelena frontoian egingo da, apirilaren 26an (zapatuan), 22.00etatik aurrera eta aurtengo kartela Musika Eskolako Mariatxia, Mikel Urkola, Saras y Lisol, Voces y Cuerdas, Duo Plaentxi eta Trio Medianocheke osatzen dute. Sarrerak 10 euro balio du eta nahi duenak aurretik erosteko aukera dauka Untzaga jubilatuetan, Chalcha jatetxean edo, bes-tela, Terraza, Txoko, Txurrut, Kultu, Ongi Etorri, Trinkete, Zubi Gain, Agiñaspi eta Birjiñape tabernetan.

Asier Serranoren 3 diskoak



"Ez Esan Inori"
2002



"Gerrari bai"
2003



"Hoteleko kantuak"
2005

10 eurotan ...eta kitto-ko bulegoetan

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n. Bidaltzekotan: publizitatea@etakitto.com



Zorionak, AITOR Gonzalez Valenzuela, astelehenian bost urte egingo dozuz-eta. Familixa guztiaren partez.



Zorionak, KENAI, etzi urtetxua egingo dozuz-eta. Jarraitu alai eta zorionsu! Muxu haundi bat etxeko danon partez.



Zorionak, IRAIA, hillaren 6xan hiru urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi-haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Aneren partez.



1,2,3,4,5,6,7... Kandela gehixegi? Suhiltzailliak badagoz, lasai! Zorionak ENE eta primeran pasau eguna!! Muxu haundixa zure ekipuaren partez!!



Zorionak, LIZAR Aranberri Zubizarreta, zure lehelengo urtebetetzian. Muxu erraldoi bat famelixaren partez, mutil haundi!



Zorionak, MARKEL, gaur bost urte betetzen dozuz-eta. Laztan haundi bat famelixaren eta, batez be, Aneren partez.



Zorionak, XABIER Montero, hillaren 17xan hamabi urte beteko dozuzelako. Familixakuen eta lagunen partez.



Zorionak, ASIER Sebastian, gaur hamabi urte egitten dozuzelako. Lagunen eta famelixakuen partetik.



Zorionak, ANDONE Agote Gorostizaga, astelehenian zazpi urte egingo dozuz-eta. Muxu bat famelixaren partez.



Zorionak, NAIA Mondragon Urizar, astelehenian hiru urte egingo dozuzelako. Muxu bat famelixaren partez.



Zorionak, LUR, sei urte bete dozuz-eta. Gure bizitzako altxor preziatuena zara! Muxu erraldoia famelixakuen partez.



Zorionak, NADIA, atzo sei urte bete zenduaz-eta. Laztan haundi bat famelixaren, lagun guztien eta, batez be, lanen partez.



Zorionak, MAITANE, martitzenian 11 urte egin zenduaz-eta. Muxu pillo bat famelixaren partez.



Zorionak, MIKEL! Martitzenian urtiak bete zenduaz-eta! Patxo bat kuadrillakuen partez.



Zorionak, EKHI, hillaren 7xan urtetxua egin dozu-eta. Patxo potolo bat, Adei eta etxekuen partez.



Zorionak, ENEKO, hillaren 16xan hamabi urte egingo dozuzelako. Famelixa guztiaren partetik.



Zorionak, ERIKA, gaur lau urte egitten dozuz-eta, printzesa! Patxo haundi bat amatxo eta famelixaren partez.



Zorionak, EIDER, pitxin, astelehenian sei urte egingo dozuz-eta. Ondo-ondo ibilli. Etxeko guztien partez.



Zorionak, GAROA (zure 11. urtebetetzian) eta aitxitxa EDUARDO, haraiñegun -hillaren 9xan- zuen eguna izan zan-eta. Muxu haundi bat bixori famelixakuen partez.



Zorionak, LUKEN (hillaren 19xan bi urte potolo egingo dozuzelako) eta MARKEL Maiora (9xan sei urte bete dozuz-eta). Etxeko guztien partez.



Zorionak, LIBE Makibar, zure lehelengo urtebetetzian. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, DANELen aldetik.



Zorionak, MARKEL Perez, hillaren 16xan hamabi urte egingo dozuz-eta. Baitta MARIMAR zure amari, 9xan bere eguna izan zalako. Famelixakuen, lagunen eta, batez be, zuekin dagan JUNERen partez.



Zorionak gure altxorreri, hillabete honetan urtiak egitten dozuez-eta: MIKELe lau eta ARRATEk bederatzi.



Zorionak, HUGO Aldazabal Irusta, hillaren 8xan zazpi urte egin zenduaz-eta. Laztan haundi bat famelixaren partez.

BARIXAKUA 11

INDIANOKUA

16.30. Egoaizia-ren jolasak eta Play/Wii. Indianokua gaztelekuan.

ANTZERKI SOLIDARIOA

18.00. "Sabina eta sorginak". La Salle Azitaingo ikasleak. Sarrera: 3 euro. Hezkuntza Esparruan.

KONTZERTUA

20.30. Opus Cuatro eta Voces y Cuerdas. 10 euro. Coliseoan.

ZAPATUA 12

DEPARKEL

12.30/15.00 eta 19.00/22.00. Parkinson Elkartearen aldeko pintxo-potea. Untzagan.

INDIANOKUA

17.00. Altzubarrengo frontoira irteera (frontenis, foballa, saskibaloia...).

II. ERREPUBLIKA GOGOAN

18.00. Ekitaldi publikoa eta Casimirori omenaldia.
19.00. Kantaldia. Salvador Amor eta Gabriel Ortega: "Rojo. Cancionero y banderas rotas". Ahaztuak-ek antolatuta. Untzagan.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Abesbatzaren irteera, Untzagatik hasita.

KONTZERTUA

20.00. Sostoaren eta Durangoko Doinuzahar abesbatza. Aurretik, **19.00etan** meza egingo da. Karmelitetan.

KONTZERTUA

23.30. The Vartools (Eibar) taldea. Ez Dok tabernan.

DOMEKA 13

TXIRRINDULARITZA

10.30. LIV. Otxoa Memoriala. Irteera Azitainetik. Helmuga 12.00etan Urkizun.

II. ERREPUBLIKA GOGOAN

10.00. Ezker Anitzak antolatuta, Errepublikaren aldeko martxa Ermutik irtengo da, Eibarreraino.
12.00. Ekitaldi politikoa.
13.00. Marcelo Usabiagak Untzagan bandera igoko du.
14.15. Bazkaria. Iruki sagardotegian.

II. ERREPUBLIKA GOGOAN

12.00. Eibarko Sozialistek Errepublikaren bandera igoko dute, Casa del Pueblo-ko balkoian.
12.30. Euskadiko Gazte Sozialistek II. Errepublikako manifestua irakurtzea eta ekitaldi politikoa, Isaac Palencia (Gipuzkoako Gazte Sozialisten koordinatzailea), Alain Coloma (Euskadiko Gazte Sozialisten idazkari nagusia) eta Miguel de los Toyos alkatea. Txaltxa Zelaian (auditorioan).

INDIANOKUA

17.00. Pelikula baten emanaldia. Indianokua gaztelekuan.

ASTELEHENA 14

IKASTEN

10.00. "Mirando al cielo" astronomia-topaketa. Beheko Tokian.

II. ERREPUBLIKA GOGOAN

12.00. Eibarko sozialistek txapliguak botako dituzte Txaltxa Zelaian.

ZINE EMANKIZUNA

19.00. "Las maestras de la Republica" (Pilar Perez Solano). 3 euro. Coliseoan.

DOMEKA 20

KONTZERTUA

19.00. Mursego eta Mobydick. Berreibar Kulturalaren eskutik. Bektokixan (Bittor Sarasketa, 7-1 ezkerre).

MARTITZENA 22

IKASTEN

17.00 eta 18.30. Joskintza tailerra. Portalean.

zineaColiseoan

12an: 17.00, 19.45, 22.30

13an: 17.00, 20.00

14an: 20.30

(1 ARETOAN)

"JOVEN Y BONITA"

(2 ARETOAN)

"UNA VIDA EN TRES DIAS"

(ANTZOKIAN)

"NOE" 12an: 19.45, 22.30

14an: 20.30

"RIO 2" 12an: 17.00

EGUAZTENA 23

IKASTEN

10.11. Mendi-ibilaldia: Plentzia- Gorliz- Ermua-Arminza (trenaren irteera, Estaziñotik; 10.13etan Ardantzatik).

ODOLA ATERATZEA

18.30. Odol-emaileentzat odola ateratzeko saioa. Anbulategian.

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Eibarko Kantuzaleak abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

LIBURU AURKEZPENA

19.30. Inma Roiz Ulibarriren "Manuela", Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira. Liburutegian.

EGUENA 24

ENPLEGU TAILERRA

10.00. "Proba psikoteknikoetarako entrenamendua. Elkarrizketarako prestatu" tailerra, lan bila dabilzatenentzat. Portalean.

UMEENDAKO TAILERRA

17.00. "Altxorren bila" umeendako tailerra (8-10 urte bitartekoentzat). Museoa (Portalean).

IKASTEN

19.30. Kaleetan Kantuz abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

HOROSKOPOA

ARIES

Izardi pixka bat botatzeko sasoa heldu da. Neguan ahalik eta gutxien mugitu zara; kirola egiteko une aproposa duzu.

TAURUS

Datozen egunotan ez zara oso umoretsu egongo. Buruan zerbait izango duzu bueltaka; horrek eragina izango du zugan.

GEMINI

Lagun handiak dituzu eta momentu txarrenean ere zure alboan egongo dira. Aintzat hartu, ez da opari txikia eta.

CANCER

Nahiko alpertuta ibiliko zara, ahal denik eta gutxien mugitzeraino. Baina batzuetan ez dago aukerarik: birkargatu pilak.

LEO

Ahara eramaten duzuna ondo zaindu arren, egun batzuetarako ahaztu eta dietari ez diozu kasurik egingo. Lasai!

VIRGO

Ametz goxoa edukiko duzu domekan, aste guztian bueltaka izango duzuna. Eta egia bihurtzen bada? Tira, ametsa baino ez da.

LIBRA

Zorraz kitatuko dituzu lagun batekin eta bakean lagako zaitu behingoz. Badakizu: bueltatzea kostatuko zaizunik ez eskatu.

SCORPIUS

Afizio berria bilatuko duzu eta orduak eskainiko dizkiozu hemendik aurrera. Kontuz ibili: ez dadila obsesio bihurtu.

SAGITTARIUS

Bizipoz bereziarekin igaroko duzu datorren astea eta ingurukoek igarriko dute. Zure poza kutsatuko diezu guztiei.

CAPRICORNIUS

Ahaleginek eta sakrifizioek bere saria daukate amaieran. Hala hobeto ospatzen dira une horiek, kostata lortutakoak.

AQUARIUS

Enkargu bat jasoko duzu, baina zure memoriak ez du barnean gordeko eta ahaztu egingo zaizu. Zer asmatuko duzu?

PISCIS

Dena ilun ikusten baduzu ere, trankil egon zaitzake zorion egunak baitatozkizu. Irrifarrea izango duzu ahoan berehala.

Viernes	Sábado	Domingo	Lunes	Martes

erakusketak

- ✓ **Apirilaren 11ra arte**
ARMERIA ESKOLAKO IKASLE OHIEN argazki erakusketak. *Untzagako jubilatutxoaren.*
- ✓ **Apirilaren 13ra arte**
“ESPASIO BERBERAREN IRAKURKETA EZBERDINAK” erakusketak, Berreibar Ekimen Kulturala proiektuaren eskutik. *Topalekuan.*
- ✓ **Apirilaren erdialdera arte**
VANESSA ATECA-REN margo erakusketak. *Casanella Studion (Juan Gisasola, 16)*
- ✓ **Apirilaren 27ra arte**
EIBARKO ARTISTEN ELKARTEAREN erakusketak kolektiboa. *Portalean.*
“EIBARKO IGNACIO ZULOAGAREN EGUNGO ISLAK” ikasleen erakusketak. *Portalean.*
- ✓ **Apirilaren 30era arte**
“ARATOSTEAK” argazki erakusketak. *El Ambigu tabernan.*
“ARATOSTEAK” argazki erakusketak. *Portalea tabernan.*

hildakoak

- Damian Mtnez. de Contraste Gomez de Segura. 88 urte. 2014-IV-3.
- Mercedes Amas Alzibar. 2014-IV-3.
- Fran Orozko Telleria. 62 urte. 2014-IV-3.
- Marisabel Elgezua Areitioartena. 65 urte. 2014-IV-5.
- Antonia Bastida Gallastegi. 90 urte. 2014-IV-5.
- Obdulia Fernandez Prieto. 86 urte. 2014-IV-8.

jaiotakoak

- Amaia Bilbao Gonzalez. 2014-III-16.
- Paule Martin Vitores. 2014-III-18.
- Adrian Gimare Ruiz. 2014-III-26.
- Maria Gabilondo Sologaitoa. 2014-IV-3.

farmaziak

- ✓ **barixakua 11**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **zapatua 12**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **domeka 13**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **astelehena 14**
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **martitzena 15**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **eguztena 16**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- ✓ **eguna 17**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- ✓ **barixakua 18**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
- ✓ **zapatua 19**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **domeka 20**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)
- ✓ **astelehena 21**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **martitzena 22**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **eguztena 23**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **eguna 24**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **barixakua 25**
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)

GAUEZ BETI
Azkue (T. Etxebarria, 4)

SUDOKUA

7	9	8	1	5	4	2	6	3
4	2	1	7	6	3	9	5	8
3	6	5	8	9	2	4	7	1
8	7	6	2	3	1	5	9	4
2	3	9	5	4	7	8	1	6
5	1	4	9	8	6	3	2	7
9	4	3	6	1	5	7	8	2
6	5	2	3	7	8	1	4	9
1	8	7	4	2	9	6	3	5

AURREKOEN EMAITZA

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitgia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 13.50etara ordu, 15.00, 15.50etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.50etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.50etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 15.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47. **EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

– Apartamentua alogagai Aste Santurako Landetako Vieux Boucaun, Hossegor inguruan. Tel. 943-701635.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Garaje itxia salgai Asua-Errekan. 27 m². Aukera. Tel. 688-814562.

3.2. Errentan

– Garaje itxia alogagai Txomon. Tel. 943-207156.
– Hiru lokal (35, 40 eta 65 m²koak) alogagai -banaka edo batera- Matxaria kalean, tren estaziotik 150 metro. Guztiz berrituta. Tel. 672-410804.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Baita ospitalean gauak egiteko ere. Tel. 632-981779.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta fisioterapiari jarduteko. Tel. 636-585930.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 626-197217.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 632-230789.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 619-041821 eta 943-744033.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaindu, sukaldari-laguntzaile jardun eta baserrian edo eraikuntzan lan egiteko. Tel. 688-302653.
– Emakumea eskaintzen da gaez nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 631-506763.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-805363.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 626-722291.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. 11 urteko esperientzia. Tel. 639-962219.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 653-075865.
– Emakume eibarra eskaintzen da goizez lan egiteko. Erizain-laguntzaile tituluduna. Tel. 616-607121.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 633-889235.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

– Masajista profesionala eta Medikuntza Energetikoan aditua eskaintzen da etxerik-etxe lan egiteko. Lehenengo saioa doan. Tel. 656-927561.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko: etxeak, tabernak, pegorak. Orduka. Tel. 699-232823.
– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 632-836130.
– Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. 25 urteko esperientzia tornuan lanean. Tel. 633-892829.
– Neska euskalduna eskaintzen da goizez nagusiak edo gaioak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-814484.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 662-252150.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta etxeko edo baserriko lanak egiteko. Tel. 622-321095 eta 631-506108.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko, baserriko lanak egiteko, etabar. Tel. 686-077316.
– Neska eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 646-821678.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 636-362251.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 619-176847.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi zabala. Tel. 674-342769.
– Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 633-709277.
– Erizain-laguntzailea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Baita gaez ere. Tel. 620-516728.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna eta asteburuetan. Tel. 655-677035.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 662-231301.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo elbarrituak zaintzeko gaez, etxean zein ospitalean. Tel. 602-561469.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 682-688813.
– Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 664-584022.
– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 617-800314.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 692-332871.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta pegorak garbitzeko. Esperientzia. Tel. 675-358119.
– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 610-658914.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-035709.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, kamarera jarduteko... Tel. 627-284033.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 697-702158.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka eta asteburuetan. Erreferentziak. Tel. 632-742431.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 674-342769.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi zabala. Esperientzia. Tel. 631-385949.
– Emakumea eskaintzen da arratsaldez eta gaez nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 628-223441.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna eta asteburuetan. Tel. 633-244397.

4.2. Langile bila

– Kamarera euskalduna behar da jate-txe baterako. Tel. 620-810120.
– Ileapaintzailea behar da arratsaldez ileapaindegi batean lan egiteko. Esperientziaduna. Tel. 943-702024.
– Langileak behar dira harategi baterako. Esperientziarekin. Bidali curriculum-a: inakigr@yahoo.es

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– Batxilergo 2. mailako Biologia eta Kimika irakasle partikularra behar da. Tel. 646-344937.

5.2. Eskaintzak

– Lizentziatua eskaintzen da maila desberdinetako ikasleei (LH, DBH, Batxilergoa...) klaseak emateko. Euskaraz eta erderaz. Banaka edo taldeka. Tel. 699-495279.
– Igarle izateko eta tarot ikastaroak ematen ditut. Tel. 685-739355.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Ohe artikulatua eta garabia salgai. Gutxi erabilitakoak. Koltxo gainekoa-ekin. Tel. 655-110362.



**Ignacio
Zuloaga
Institutua**



EIBAR

Ate irekien eguna

Apirilak 30

Ordua 18:00

Batxilergoak: Arteak - Humanitateak eta Gizarte Zientziak - Zientziak eta Teknologia



Elkartrukeak

Alemania - Ingalaterra

Jardifneta 3 Eibar · Tel.:943208349 · Fax:943206048 · www.ignaciozuloaga.net · E-mail:012055aa@hezkuntza.net

euskararen transmisioa

2014ko
maiatzak 6
astearta

MINTEGIA

EIBAR
Portalea
Kultur Etxea

Antolatzailea:



Babeslea:



Laguntzaileak:



IZEN EMATEA Apirilaren
30era arte

(25 €, bazkaria barne)

Informazioa: 943 20 09 18
normalizazioa@etakitto.com

Eskaintzak eta ideiak
AKÍn hazten dira

VIVAKI JARDÍN

zure gida berriarekin!



Brikolaje erraza

Precios válidos hasta el 25 de mayo de 2014

VIVAKI Jardín



desde
€0,99
Macetas
pág.60

**¿Pensando
en pasar
más tiempo
en tu jardín?**



Zure lorategia
mantentzeko eta
gehiago gozatzeko.
Eskatu zure dendan
edo jaitsi hemen:
[aki.es!](http://aki.es)



€24,95

Toldo VELA
3,6 x 3,6 m.
pág.11



€199

Set KUBIC
Mesa y dos sillones con brazos.
En aluminio y textileno. Con sillones
encontrables.
Ref. 7001851

puntos
SINFIN X2

